

Aretxabaletako

Ibilbide historikoa

02



loramendi

Ibilbidearen mapa

Ibilbidearen mapa 14-15. orrialdean aurkituko duzu, bidean errezagotzako aurkituko duzun.



01

Km82



Ibilbidearen hasiera



Plaza azpian kokatuta dagoen Km82 harritik emango diogu hasiera 2. ibilbideari, antzinako diligentiaren geroago eta geroago autobusaren geltoki izan zen lekutik hain zuzen: **Izurieta (Usitta)-Galartza-Apotza Etxebarri**. Eliza ostetik eskumataren hartu, Lausitta (Usittako laua) auzoa zeharkatu Izurieta seinalea dagoen bidegurutzetara, eta seinaleari jarraituz, GI-3132 errepidetik, handik kilometro batera dagoen Izurieta elizatera helduko gara.

02

Izurieta



Eliza eta inguruko baserriak: San Pedro apostoluaren elizak berrikuntza asko jasan baditu ere sagrario gotikoa mantendu du eta baita leiho erromanikoa ere. Garai batean eliza O atiko kondearen menpe egon zen eta berak izendatzen zuen bertako abadea. Ohikoa zen lez baserriarrek abadeari hamarrenak, hazikinak eta olatak astero eramaten zizkieten eta Damaikasiak jasotzen zituen. Patxi Ametzaren esanetan, Izurietan, usadio honek Don Vitoriano etorri arte iraun zuen.

Amarrenak eta hazikinak: Elizari urtero entregatu behar izaten zitzaion jeneroa (gaztainak, arrautzak, oilaskuak) edo dirua: bildutakoaren hamarrena.

Olatia: Ogi berezia, bi edo hiru aldiz eralgitako irinez egina. Hiru puntakoa gehienetan erdian arrautza batekin, hau ere ogiarekin batera labatiz pasatua. Elizan eskaintzen zen primerako hiletetan eta apaizari ere oparitzen zitzaion.

Damaikasía: Abadearen neskamea.





Eliza inguruan dauden baserriak honako hauek dira:

Ugalde-Enea: Garai batean abade etxea zen eta alboan du San Pedro eliza. Baserri honetakoek dute eliza zaintzeko ardura.

Olabe baserria Isurieta garaikoa baserria: Gaur egun auzoan Mokorrrena izenez ezagutzen dute.

Isurieta azpikoa baserria: Baserriak armarrria du (Armarriaren argazkia). Lope de Izurieta, bertako semea, Navas de Tolosako gudan egotearren armariari urrezko sei kate-maila zuen bordatura gehitu zitzaion.





Utzi dugun GI-3132 bidea berriz hartu eta aurrera eginda **Izurieta aurrekoa (Porruena)** baserriarekin egingo dugu topo. Baserri honetan aska bat topatuko dugu, bertan garbitzen zituzten arropak antzina emakumeek. Handik 200 metrora ezkerraldean dagoen **zordanbidea** (hitzak, berak dioen bezala, zor dan bidea, pasatzeko eskubidea duzun bidea) hartu eta apur bat aurrerago, eskumaldean karobia (**karabixa, karobixa**) aurkituko dugu.

Baina zer da karobixe? Karea egiteko labeak ziren. Erromatar garaitik ezagutzen ziren Euskal Herrian, baina hauen hedapen handiena XVII. mendean izan zen. Estructura zilindrikodun hareharri edo harri beltzez eraikitako 2-3 metroko labeak ziren. Goitik kare harria botatzen zuten eta azpian harrizko sabai edo arku bat izaten zuen. Azpiko sabai horretan egurrarekin sua egiten zen. 48 orduz labea martxan egon ondoren harria egosita geratzen zen eta beheko atakatik karea ateratzen zuten. Karea egin behar zen bakoitzean prozesu guztia hasieratik hasten zen: Sabaia edo arkua egin, 2-3 metroko labea eraiki, goitik harria ondo kokatu, sua egin...

Karea zertarako erabiltzen zuten? Eraikuntzan morteroa egiteko, elastikoagoa eta moldagarriagoa izaten baitzen. Zoruak kareztatze, lurrean uraren barmatzea errazten zuelako. Paretak kareztatzean bi funtzio zituen: margotzea eta desinfektatzea. Arraultzak kontserbatzeko eta animalien larruak desinfektatzeko erabiltzen zuten. Baita zuhaitz enborretan ematen zen intsektu eta animalietatik babesteko ere.



Zordanbidea beherantz jarraituz, pinu artean dagoen **Solopoto** izenez ezaguna den lautadatxo batera iritsiko gara. Bidearen ezkerrealdean dagoen sendatxotik segi eta gure sudurrak sulfato usaina sumatzen duenean, hantxe bertan, uretz iturritxo bat aurkituko dugu, baso eta guzti.

Solopoto: Solua , lantzeko lurra eta poto , zuloa.



04

Uretza



Aretxabaletan Uretz uhastegi ugari daude. 3. Ibilbidean ikusiko dugunez, garai batean Aretxabaletako Bainuetxea ospetsuak izan zen. Izurietako hau xumeagoa izan arren, Patxiren esanetan, Arrasateko jende asko etortzen ei zen bertatik ura edan edo azalean ematera. Ibilbidera itzultzeko erreka bat pasatu behar da eta berriz zordanbidea jarraituz, karobira bidean ezkerretara hartu. Gorantz eginez beste bi baserriren albotik pasatuko gara, **Ametza—Garai Handia** eta **Ametza-Garai Txikia**, Ametzara heldu arte.





Ametza auzunetxoa hiru baserrik osatzen dute: **Ametzagabehekoa**, **Ametzagagoikoa** eta **Ametzagaldekoa**. Orain dela urte gutxi arte bertan bizi zirenak **errenteroak** ziren, hau da, baserri eta inguruko soroen jabegoa bailarako jauntxo edo hijosdalgos ena zen eta baserritarrak **errenta** pagatu behar izaten zieten. Errenta, normalean, Santamas inguruan ordaintzen zen, bai dirutan bai generotan (artoa, garia, kapoiak.....). Aretxabaletan baserri asko Otazurenak ziren; Ametza, berriz, Eskoriatzako Ganuza familiarena. Anekdotak gisa esan daiteke Aretxabaleta herrian landatuta dauden aretxak, baserri hauen azpian dagoen hariztitik hartuak daudela.

Ametzatik Galartzara joateko badago oinezkoek bakarrik erabili dezaketen zorbidea, gaur egun auzokoek erabiltzen dutena; baina guk buelta eman, etorritako bidetik atzera egin eta ezkerretara gorantz doan bidea hartuko dugu Naparrena baserrira joateko.





Naparrena baserria: Muru (Murugain) mendiaren magalean dago, Udalatx parez-pare duela. Alboan, berriz, Zahar potzu izenez ezagutzen den putzuetako bat dago. Bertan pilatutako urak ekartzen duen lohia oso ona da orturako. Horregatik, putzuari bete dadin utzi eta sikatzen denean hartzen dute gaineko lur kapa hori. Garai batean Naparrenetik gertu ermita bat zegoen, San Adrian izenekoa, XVII menderarte zutik iraun zuen eta zaintzen ez zutelako botarazi zuten. Ermitaren inguruan trikuharri edo halako megalito bat ei zegoen. Abadeak On Joxemiel Barandiarani notizia eman zion, baina hau oso lanpetuta zegoen eta etorri orduko inguruko baserritarrek harriak hesi bezala erabiliak zituzten. 1799an San Adrianen haritzak landatu ziren.

Naparrena baserritik aurrera jarraituta **Alkurrena** baserria aurkituko dugu eta aurrerago Etxezuri.

Etxezuri baserria: Lehen Murube izenez deitzen zuten. Baserri honetatik sortu zen gaur egun ezaguna den Murube izeneko zezen hazkuntzarako enpresa (ganaderixia). Andaluzia aldera joan ziren bertakoak eta bertan sortutako ganaderiari Murube izena jarri zioten.



Etxezuritik aurrera jarraitu eta 50m ingurura bidegurutze bat aurkituko dugu, gorantz doan bideak Murugain mendira eramango gaitu eta beherantz doanak berriz Galartza auzoko **Zillaurren** auzunera.





Murugain mendiak 775 metroko garaiera du eta hiru udalerriren elkartze puntua da (Aretxabaleta, Arrasate eta Aramaio) eta baita bi herrialderen elkartze puntua ere. Murugaineko gururutzea 1950. urtean jarri zen, UDA kirol elkarteko mendizale taldeak burdinezko gurutzea jartzea erabaki baitzuten. Herriarrek, Galartzako baseritarren idi eta gurdien laguntzaz jaso zuten gurutzea gailurreraino. 1950ko ekainaren 4an inauguratu zen.

Bidean beherantz jarraitu eta **Zillaurren** auzunera iritsiko gara, eta bertan baserri hauek ikusiko ditugu : **Etxebarri—Garai, Tauleruena, Azkotixa, Azkotixa Txiki, Goitikua, Errartena, Urkuzuena** eta **Peruena** baserriak. Azkoitixa Txiki ondoan dagoen bidegurutzetik behera joanez gero Eskoriatzako Gellao auzora joango gara, Errartena, Urkuzuena eta Peruena baserrietatik pasatuz.



Gure bidean aurrera jarraitzen badugu Galartza elizateko kanposantua ikusiko dugu eta bertan esaldi bitxia irakurri dezakegu: Ni gaur eta zu bihar, ona etorri bear . 1896an idatzitako esaldia da.

100m ingurura **Galartzako Eliza** eta **Dorretxea** aurkituko ditugu.






Santa Luzia da bertako zaindaria eta abenduaren 13an ospatzen da. Santa Luziari ikusmena babesteko erregutzen zaio.



XIV mendian eraiki zen, lehen solairuraino harriz eta handik gora egurrez. 1423an Ahaide Nagusien arteko borrokak zirela-eta, Gebaratarrek, Galartzatarren etsaiak, sua eman zioten dorretxeari. Berreraikitze lanean dorretxea luzatu egin zuten eta gerora egurra kendu zioten. 1650. urtean, dorretxearen nagusi zen Santxo Galartzakoa hil ondoren, Galartzatarrek Arrasaten erositako etxera joan ziren. Dorreak itxura eta erabilera aldatu zuen; horrela, 1825 urtean baserri bihurturik O '96atik Plaza familiaren eskura pasatu zen. XX. mendean bertan bizi ziren erretereroek erosi zuten dorretxea. 1990eko abuztuaren 2an suak guztiz erre zuen. Gerora berreraikita dago eta berritze lanek dorretxearen ospe eta ohorea erakusten digute. Gaur egun dorretxearen zati bat familiarena da eta beste zatia Aretxabaletako Udalarena, artxibo modura erabiltzen dena.



Dorretxea eta Eliza atzean utzita errepidetik beherantz jarraituko dugu eta 500m ingurura Zalo a auzunea ikusiko dugu.

Zalo a



Zalo a auzunea elkarrekin dauden hiru baserrik osatzen dute: **Zalo a Goikoa**, **Zalo a Aldekoa** eta **Zalo a Behekoa**. Zalo a baserritik 60m ingurura San Pedro ermita zegoen, ermita bota egin zuten eta 1763an ermita zegoen lekuan gurutze bat jarri zen.

Zalo a baserrian armarri bat dago, horrek adierazten du bertako arbaso batek (Llorente I igo de Zalo a) lehenengo gurutzadetan parte hartu zuela. Bitxikeri modura esan dezakegu baserriaren izena eta bertan bizi den familiaren abizena bat datozela.



Ibilbidearekin jarraituz, Zalo atik errepidean behera joango gara Untzilara doan errepidearekin topo egin arte. Bidegurutzean eskuin aldera joz gero **Baster—Alde** baserria topatuko dugu, 200m ingurura. Antzina Baster-Alden sagardoa egiten zen eta garizuman bertaratzen zen jendea banatzen zitzaion. Guk, ordea, bidegurutzean ezkerretarantz hartuko dugu, Egileor baserriarantz.

Egileor baserria: Egileorretik gertu, **Maaletxe** izeneko iturria dago eta lehenago auzokoek bertatik hartzen zuten etxean edateko ura.





Egileorretik behera 100m ingurura, eskumarantz gorantz doan porlanezko bidea hartuko dugu, aldapa gogorra da, baina igo orduko iritsiko gara Apotza—Etxebarri auzora, eta bertan ikusiko dugu Salluente ermita. **Salluente** izena, Saint Llorente izenetik datorrela esaten da eta santu hori aldarean aurkitzen da, baita San Blas eta San Juan ere.





Baselizan sartu eta erretaulara begiratzuz gero, ezkerretik Salluente ikusiko dugu, erdian San Juan eta eskuman San Blas.

Leintz bailarako lehen eliza izan zen eta oraindik ere bertan dago bataiorako bataiarria. Ia 1000 urte dituzten bi gurutze ere badaude. Gogoratu behar da Aretxabaletan dagoen Andramariaren irudia San Blasekoa (Salluentekoa) dela, XIII. mendekoa.

Otsailaren 3an ospatzen da San Blas eguna eta ohitura zaharrari jarraituz gaur egun ere, egun horretan herritar ugari gerturatzen da Salluentera poltsan eramandako goxokiak eta opilak bedeinkatzera. San Blasi eztarria zaintzeko erregutzen zaio. La Casa del Ermita o izenez ezaguna da ermitari lotuta dagoen etxea. Ondoan, berriz, abade-etxea dago.



Bidean aurrera jarraitu eta ezkerretara **Orueta** eta **Unanue** Baserriak daude eta eskumara, berriz, **Kortazar**.

Aurrera jarraituz **Antxustegi** baserria 500m ingurura topatuko dugu eta **Landeta—Barri** handik 600 metrora.

Errepidean behera jarraitu eta autopista azpitik pasata, **Markole auzora** iritsiko gara.



14 Markole baserria

Gaur egun Markole auzoa dagoen lekuan Markole baserria zegoen. 1996. urtean eraitsi zuten.



Gure ibilbidea bukatzeko erreka ondotik beherantz egingo dugu, erdigunerantz eta berriz ere 82. kilometrora iritsiko gara.



🚩 Ibilbidearen bukaera



Ibilbidearen mapa

Zenbakiez agertzen diren tokien deskribapena barruan aurkituko duzu.





Aretxabaleta



Apotza-Etxebarri


Antxustegi


14 Malkorre

Apotza-Etxebarri 12

San Blas 13

Egillor





Aretxabaletako

Ibilbide historikoa

Oharra: Y Aretxabaletako argazki artxiboko argazki batzuk erabili ditugu.
Y Euskal Herria aldizkariko 38. zenbakiko marrazki bat erabili dugu.

adobx diseinua



loramendi

Durana 11 (Udaletxe Zaharra)
20550 Aretxabaleta AE Gipuzkoa
Tel.: 943 77 09 70 / 685 75 67 29
loramendielkartea@gmail.com